

ERDU PRESS

ARRIETA • FRUIZ • GAMIZ-FIKA • MEÑAKA
EUSKARA ZERBITZUA

18. zkia.

2004ko urria




**OSTERA BERE, OSTERA BERE...
GEURE BETIKO ZEREGINETARA**

GEURE TXIKIAN, HANDIAK

Egia da gureak herri txikiak dirala, goazen lekura goazela be, gurean ez dogula jentetza handirik topatuko, baina egia da baita be, honako edo harako batzen garenen, taldetxo polita osatzen dogula. Aste barruan, esate baterako, goizean goizetik, hainbat neska-mutil taldetxo ikusten dogu, herriko plazan edota auzoetako kamino bazterretan, motxilea aldean, eskolarako autobusari itxoiten. Han eta hemen ikusten doguzan horrek guztiak batu ezker, gure herri txiki honeetan eskolara joateko sasoi dagozan (3-16 urte) hamaikatxo lagun daukoguzala konturatzen gara; Arrietan, adibidez, 62 neska-mutil daukaguz, Fruizen 33, Gamiz-Fikan 180 eta Meñakan 51. Herri txikiak gara, bai, baina bizi-bizirik gagoz, eta aurrera egiteko gogo handiagaz.

IPUIN LEHIAKETA

Jakingo dozuenez, Arrieta, Fruiz, Gamiz-Fika eta Meñaka udalerriek ipuin lehiaketa antolatzen dabe gabon inguruan. Aurtengo hau ipuin lehiaketaren VII. edizinoa izango da. Ipuinak aurkezteko epea daborduko zabalik dago, eta lehiaketan parte hartu gura dauanak, hemendik eta abenduaren 31 arte eukiko dau ipuinak aurkezteko epea. Sariak abenduaren 17an banatuko dira, Gamiz-Fikako udaletxean, arrastiko 19:30etan.



BEGIRALE EUSKALDUNEN LAN POLTSA

Gure udalerrietan, batez be udan, ume eta gaztetxoei zuzendutako hainbat ekintza antolatzen dira (udako jolasak eta kirolak, tailerrak, ludoteka, euskal txokoa...) Ekintzak aurrera eramateko begirale euskaldunak topatzea arazo izaten da sarritan. Hori dala eta, gure udalek begirale euskaldunen lan-poltsa eratu gura dabe, gero hemengo eta inguruko aisialdiko enpresei banatzeko. Lan-poltsa horretan izena emoteko honako baldintzak bete behar dira:

- 18 urte eukitea.
- Begirale titulua eukitea.
- Euskarazko agiriren bat eukitea.
- Arrieta, Fruiz, Gamiz-Fika edota Meñakakoak izatea.

Lan-poltsarako izena udaletxeetan emon behar da, eta epea abenduaren 31 arte egongo da zabalik.

EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA

Seme-alabei, lagunei, familiakoei... euskaraz zeozer erregalatu gura bai, baina askotan ez dogu jakiten euskaraz ze bideo, jostailu, liburu, musika... dagoen salgai. Hori dala eta (eta kontuan eukita gabonak guk uste baino lehenago daukoguzala gainean) gure udalek abenduan liburuxka bat bialduko dabe etxetara. Liburuxkak zazpi atal izango dauz: musikea, informatikea, filmak, liburuak, jostailuak eta jokoak, aldizkariak eta web helbideak. Horretara, aurtan aukerea izango dogu merkatuan euskaraz zer dagoen jakiteko, eta geure ingurukoei euskaraz dagozan produktuak oparitzeko.

UMEAK "BIZIKI" OLGETAN

Mungialdeko Gizarte Zerbitzuetako Partzuergoak (Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Laukiz, Meñaka eta Mungia udalerriak hartzen dauz) aurtan "Biziki" proiektua jarri dau martxan lehenengoz. Proiektu horregaz, osasun hezkuntzan eta ohituretan sakondu gura da. "Biziki" herritar guztiei zuzenduta dagoan ekimena da. Baina uda honetan batez bere umei zuzendu jakez ekintzak.

Abuztuan eta irailean astean behin umeak Mungialdeko herri desberdinetan batu izan dira ekintzak egiteko, eta Partzuergoak doan jarritako autobusa erabili izan dabe herri batera edo bestera joateko. Urterean barri emoteko, seitik hamabira bitarteko umei gutun bat bidali jakien etxetara eta horrez gainera kartel informatiboak jarri ziran herri guztietan.

Ekintzak ugariak izan dira: zumoak egin, eskulanak, kanpoko jolasak, filmeak ikusi, igerilekura urteerak...eta ekintzon bidez, gure herriak hobeto ezagutzeaz gainera, euren arteko harremanak be estutu dabez umeek.

Batazbeste 25 bat ume batu dira ibilaldi bakoitzean eta eduki dauan arrakasta ikusita, proiektuagaz aurrera jarraitzeko asmoa dago.

FRUIZ

FRUIZKO MENDIZALE TALDEA

Talde barri bat dogu Fruizen: Fruizko Mendizale Taldea. Eta horrek, herrian eta herritarrentzako gauzak egiteko gogoia badagoela erakusten dau. Beraz, ezer baino lehen, zorionak taldea martxan bota dozuen guztioi; herritarrei begira egindako edozein ekimen pozgarria eta eskertzekoa be bada eta.

Izan be, holango zein bestelako ekimenakaz, herritarrari herrian bertan parte hartzeko aukera emoten jako, eta hori benetan da txalotzekoa, normalean herri txikietakook beste herri handiago batzuetara jo behar izaten dogu-eta gurean egin ezin doguzanak egiten.

Herrian bertan ekintzak eskaintzeak eta aurrera ateratzeak bestalde, herritarroi herriaren parte sentiarazoten gaitu, apenas ikusten doguzan herrikideekaz hartu emanak eukiteko bidea emoten deusku eta zelan ez, herriak berak be bizia hartzen dau eta jakina da, danok ibiltzen garala gusturago eta pozago mugimendua daukon herri

batean, eta zer esanik ez, herri hori geurea bada.

Fruizko Mendizale Taldeak antolatutako lehenengo urteera abuztuaren 21ean egin zan, eta arrakasta handia izan eban, 40 lagun inguru batu ziran-eta, giro ederrean, Fruizko bost ermitetatik lehenengo ibilaldi hori egiteko. Hurrengo urteerarako mendizale taldeak Fruizko iturrietatik ibiladia egitea dauka aurreikusita.

Amaitzeko, gogoratu Fruizko Mendizale Taldea sortu barri honegaz batera, honako talde honeek be badaukoguzala herrian:

- Fruizko Abesbatza
- Fruizko Nagusien Alkartea
- Fruizko Futbol Taldea

Ongi etorria ba, talde barri honeri, eta gonbitea herritarrei herrian daukoguzan taldeetan parte hartzeko, bai eta beste talde barriren baten beharra sentidu ezkerok, talde barri hori eratzeok, herriak eta herritarrok be eskertuko dogu eta.



GAMIZ-FIKA

V. MENDI IBILALDIA

Urriaren 3an, domeka izan arren, nagiak atera eta goizean goizetik jaiki zan jentea Gamiz-Fikan; izan be, ondo armozatu, pres-tatu beharrekoak prestatu, eta goizeko 8:30etan Gamizen egon beharra zegoan, beste behin be, Gamiz-Fikako mendi ibiladiari ekiteko. Aurtengo honetan, egia esan, beren-beregiko eguraldia egin eban, eta horrek partehartzea be oso handia izatea eragin eban. Datorren urtean be, beste horrenbesteko partehartzea espero da, orain arteko esperientziak erakusten dauanez, urteroko mendi ibiladi hori herritarren artean tradizino bihurtzen joan baita eta, daborduko, hutsik egin ezin jakon zita garrantzitsu-a dogu gamiz-fikarrok.



IKASTARO BARRIAK

Orain arte Gamiz-Fikan gimnasia eta aerobic ikastaroak izan doguz; ikasturte barriagaz batera, lehengo ikastaroez gain, beste barri batzuk be hasi jakuz. Eta esan behar da herritarrak gauza barriak egiteko eta ikasteko gogoz egon dirala; izan be ikastaro guztiak arrakasta handia izan dabe, eta udalak uste baino askozaz jende gehiagok emon dau izena ikastaro guztietara. Datorren ikasturteari begira, kontuan hartu beharreko datua dogu, beraz.

Hona aurten Gamiz-Fikan eskainiko diran ikastaro barriak:

®EUSKERA IKASTEKO IKASTAROA: Hasiera maila: ASTELEHEN ETA EGUAZTENETAN, FIKAN

®KANTA IKASTAROA: BARIKUETAN, GAMIZKO UDALETXEAN

®DANTZA IKASTAROA: ZAPATUETAN, GAMIZKO FRONTOIAN

ARRIETA

Sarekide erakusketa



Irailaren 30ean hasi eta urriaren 13 rarte "Sarekide" erakusketa euki dogu ikusgai Arrietan. Aitatutako erakusketa hori MENDINET Toki Ekintzako Taldeak eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak bultzaturiko Erakusketa Mugikorra dogu. Eta Erakusketaren helburuak, besteak beste, honako honek izan dira:

-batetik, landa guneeetan bizi diran herritarrak gaur egungo eta etorkizuneko informazio eta komunikazioaren teknologia barrien inguruan sentsibilizatzea, prestatzea eta informatzea.

-eta bestetik, aukera eta proiektu barrien sorrera bultzatzea eta sustatzea.

Holan ba, erakusketa landa guneeetako bizilagun guztiei egon da zuzenduta.

Erakustea ikustera jentea taldeetan zein bakarka etorri izan da, eta umeak izan dira gehien animatu direnak, umeakaz fortografia tailer bat egin zan, eta baita zine emonaldi bat be.

Arrietan ikusgai izan dogun erakusketa hori datozen egunotan Berastegin egongo da, eta azaroaren 18, 19, 20 et 21ean Barakaldoko BECen.

SAN MARTIN JAIAK

AZAROAK 11, EGUENA:

San Martin eguna.

Goizeko 10:00etan TXUPINAZOA
Goiz osoan zehar trikitixa giroa alaitzeko.
Arratsaldean ERROMERIA.

AZAROAK 12, BARIKUA:

Mozorro eguna.

Gaueko 22:00etan DISKO FESTA,
"Jacin DJ" taldeagaz.
Atsedenaaldian, mozorro lehiaketaren sari banaketa.

AZAROAK 13, ZAPATUA:

Umeen eguna.

Egun osoan zehar UMEENTZAKO PARKEA: Quads, ludoteka, puzgarriak...
Arratsaldeko 18:30etan IPUIN KONTALARIA.
Iluntzeko 20:30etan ERROMERIA, "KRESALA" taldeagaz.

AZAROAK 14, DOMEKA:

Azoka eguna.

Goizean, euskal produktu eta abereen azoka.
Eguerdian, BERTSOLARIAK: Sustrai Kolina eta Igor Elorza.



MEÑAKA

MEÑAKATARREN ARGAZKI ZAHARRAK

Meñakako Udaleko Kultura Zinegotzigoak helburu nagusitzat dauka gure herriko edoze-lango kultura ondarearen berreskuratzea, argitaratzea eta ondorengoetara igortzea.

Hurbileko historia nagusia da ahal dala gogoratu, zaindu eta gorde behar dogun altxorra; gure guraso eta aiton-amonen bizimoduaren barri emoten deuskuna hain zuzen be.

Alor honetan garatzen ari garan azterketen artean, poztasun ikaragarria emon deuskun lantxo bat dogu: Jaietan antolatu genduan argazki zaharren erakusketea.

Erakusketa hau, herritarrek gure esku ipini dabezan argazki zaharren bilketa, aukeraketa, data ipintze eta digitalizazio lanaren ondorioa izan da. Herritarrakandik jasotako lan handiaren aitortpena izugarri eskertzen dogu.

Lan hau emakume talde batek burutu dau, interes handi eta aitagarriaz ekin-ekinean lanean ibili direnak. Euren egindako ahalegi-nak gure helburua lortzen lagundu deusku.

Horrela bada, herritarren eskaerei erantzunez, argazki erakusketea gabonetarako antolatuko dogu osterara be; hori dala eta udaletxean argazki zaharrak biltzeko epea zabaldu dogu, dana-dalakoagatik orain arte ekarri ez dabe-mentzat, eta erakusketea hobetzeko asmoz.



URRIA-ABENDUKO KULTURA-EGITARUA

URRIA

Ikastaroen hasiera.

Urriak 25:

Urriko azken astelehenean Gernikarako autobusa.

AZAROA

Azaroak 6 :

"Euskal jaia": Bertsolariak, trikitilariak, sagardoa,...

ABENDUA

Abenduak 6:

Durangoko Liburu Azokara ibilaldia.

GABONETAKO EGITARUA:

Abenduak 17:

" Ipuin Lehiaketa "ren sari banaketa (Gamizen)

Abenduak 18:

"Gaudeamus Korala"ren eskutik kontzertua Meñakako Andra Mari eleizan.

Abenduak 19: Gabon kanten emonaldia.

Abenduak 24: Olentzero.

Abenduak 26: Ipuin kontalaria.

Abenduak 24 eta abenduak 31: Jaiotza bizirik.

UMEEN TXOKOA

ZELAN HASI DOZU IKASTURTEA?



UXUE
AGIRRE
(MEÑAKA)

-Nahiko ondo hasi naiz lagunekin ondo eta psik berriro ikusteagatik. Lan asko eta ikasteko ere bidaltzen digute baina oso ondo pasatzen dogu jolas-ten. Hobeto oportetan baina ez dago txarto lagunak berriro ikustea.



MAIALEN
LARRABEITI
(GAMIZ-FIKA)

-Hasieran oso pozik egon naz ikastolan, ze aspertuta be egon naz oportetan. Baina orain apur bat txarra- go ze klaseko mutilekaz ar- zoak eukiten doguz.



UXUE
AGIRREGOTITA
(ARRIETA)

-Egia esan ez neukan eskolara hasteko gogo handiegirik, baina gero ondo pasetan dot. Txarrena da 3.mailan asko ikasi behar dala, eta azterketa piloa daukaguzala. Onena aurten tokau jakun andere- ñoa da, oso maja da!



MAIDER
GARAI ORTUZAR
(FRUIZ)

-Oso ondo eta pozik. Aurten 3. mailara sartu naz eta andereño barria daukot. Orain arte ez dogu libururik erabili eta aurten liburuak daukoguz. Autengo ikas- turtean maisu-maistra asko daukaguz, musikarako, ingeleserako, gimnasiara- ko... Balletera be joaten hasi naz, arras- tietan. Ingelesa be ikasten dot. Klasean mutil barri bat daukogu, eta guztira 12 neska eta 9 mutil gara.

AHO KORAPILOA

Irakurri aho korapilo hau arin-arin 3 bider. Zer? Erraza dala emoten dau , ezta? Ba, ez da, ez, hain fazila !!

Zer dauka akerrak?

Akerrak adarrak okerrak ditu
Adarrak akerrak okerrak ditu
Okerrak akerrak adarrak ditu
Baditu bere, bereak ditu.

Zer dauka akerrak?

Akerrak adarrak okerrak ditu
Adarrak akerrak okerrak ditu
Okerrak akerrak adarrak ditu
Baditu bere, bereak ditu.

ESAERA ZAHARRAK

- Udabarrien makatza, udegoyenien matsa.
(Atsotitzak, Gotzon Garate)
- Urria, usoaren galgarria.
(Atsotitzak, Gotzon Garate)
- Eskola mutillek sasiz sasi, asko jan eta gutxi ikasi. (Atsotitzak, Gotzon Garate)

TXISTEAK**OPORRAK**

- Eta zuek non egon zarie oporretan?
-galdetu deutsie Mirenek lagunei.
- Kosta Bravan.
- Eta zelan... jatekoa, hotelak eta prezioak?
- Ba... hotela aurtengoa, jatekoa igazkoa, eta prezioak... datorren urtekoak!
(Txorakikeriak, Kike Amonarriz, moldatuta)

MARGOLARIA

- Zazpi astetan, zortzi koadro pintatu dodaz
-esan deutsio Xabier margolariak aitari-.
- Eta saldu, ezer saldu dozu?
- Bai, disko-jogailua, idazteko makina eta txamarra.
(Txorakikeriak, Kike Amonarriz, moldatuta)

**ZENBAKI HONETAN
PARTE HARTU DABE:**

**ZURIÑE GOTI
IRATXE LASA**

**MAITE TORREALDAI
ELIXABETE URIARTE**

HIRU BUELTA ELEIZARI (legokitua)

Meñakako eleizari, gabean, hiru buelta emotea, gauza sakratua izaten zan. Gabean beluan, eleizpe barritik eta elizpe zaharretik. Hor pasau zan, hamen egon zan pertsona bat, gurago geunke zer edo zer gaur bizi balitz, ze hamen izan dan pertsonarik zuhurrena eta argiena zan, hura baino buru argiagorik ez da Meñakan egon. Herriko taberna gaur dan lekuan lehenago be taberna egon zan. Eta hara, Axpe etxeko bat etorten zan, horra bizargintzan, zapatuetan, ulea ebagiten, bizarra kendu eta egiten. Gizon talde bat bildu eta batek besteei bil-durra sartuteko edo:

- Eta orain nor izango litzateke gai, Meñakako eleizari, eleizpetik hiru buelta emoteko?- eta...
- Trankil emon neikez nik.
- Bai zera!!
- Ba ordaintzen badeustazu ardaa...- arda goxoa gus-tetan jakon eta.

Axpeko bizargina etorten zan hara, zaldi ganean, ze Axpe asau dago, bera zuhurra zan, baina berak ez dakiena, besteala joiala handik atzetik, eta zaldiagaz parau zan eleize zaharrea. Emon eutsazan buelta bi, hirugarrenean, zaldiak higituta ganera, urten deutsa han, baina aurki hil ez zanean!

*Meñaka Berbarik Berba
Meñakako udala*



**ARRIETA • FRUIZ
GAMIZ-FIKA • MEÑAKA**

**EUSKARA ZERBITZUA
ZURE ESKU**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
Kultura Saila
Euskara Sustatzeko
Zuzendaritza Nagusia